



HAZTERIAREN AURKAKO TRATAMENDUAK ARDI AZIENDARI URBASA ETA ANDIA MENDIETAN

Joan den otsailean bidalitako gutunean, azienda Urbasa-Andia mendietara sartzeko eskaerari buruzkoan, Ingurumen Departamentuak, Natura Parkea Erabili eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailearen (EKZP) arabera, ardi-azienda-dunei ohartarazi zien **ektoparasitoen aurkako tratamendua aplikatu behar zitzaioela aziendari mendietan dauden bitartean, abuztuan lehentasunez**. Pasadan urteetan bezala, tratamendu horiek onuradunen kontura izanen dira. Ingurumen Departamentuari koordinazio-lanak egitea, azpiegiturak hornitzea eta abeltzainei laguntzea dagozkio soilik. Eskakizun hori bat dator Nafarroako Gobernuak Abeltzaintza Zerbitzuak, Urbasa eta Andia mendietako larreen aprobetxamendu segurua egiteko ezarri nahi duen "Mendilerroen Osasun Programa" izenekoarekin.

Beraz, **abuztuaren 1etik aurrera mendietan egonen den ardi-aziendarentzat nahitaezkoa izanen da irailaren 30a baino lehen hazteriarren aurkako tratamendua aplikatzea; kasu horietakoren bat betez gero soilik saihestu ahal izanen da tratamendua:**

- Albaitari pribatu batek emandako ziurtagiri baten bidez; horretan, hazteriarren aurka egindako tratamendua jasoko da, eta data(1) eta produktua zehaztuko dira;
- Ustategiaren titularraren zinpeko aitoren baten bidez, I. eranskinean zehaztutako ereduaren arabera. Horrekin batera, erabilitako produktuaren erosketa-faktura atxikiko da.

(1) Hazteriarren aurkako tratamenduak eraginkortzat jotzeko, 2024ean aplikatuak izanen dira tratamenduak.

Dokumentazio hori **uztailaren 25a baino lehen bidali beharko da** Urbasa-Andia Natura Parkeko Bioitza Baso Etxean dituen bulegoetara.

Ziurtagiri edo zinpeko aitoren hori aurkeztu ezean, neurriaren eraginpean dauden abeltzainek Parke Naturaleko kudeatzaileek DUTXA eta BAINU prozeduren bidez (Arbeltzeko instalazioak) proposatutako desparasitazio-kanpaina berri bat egin beharko dute.

Joan den urtean ez bezala, Larreen Batzarrak, Urbasa eta Andia Parkeko kudeatzaileei, Arbeltzeko bainuen kostuen azterketa xeheagoa eta kostuen egozpen zuzena egitea eskatu die. Horretarako, produktu-ebakuazioa, ardiak bainatzen dituzten ustategiek ordaindu beharko dutela erabaki da, eta dutxa bidez aplikatutako tratamenduetatik eratorritako gasturik ez zaie egotziko; ziurrenik, tratamenduaren batez besteko kostua gorantz alda dezakelako. Beraz, azken ebakuazioaren kostuen azterketa eginez, egindako ardi-tratamenduko 0,30 €-ko prezioa kalkulatu da. Urbasa-Andia Mendien kudeatzaileek, ondorengo kanpainetan, sortzen diren hondakinen bolumenaren jarraipena egingo dute, tratamenduaren prezioa adosteko.

Bi prozeduretako edozeinen bidez zure aziendariparasitoak kentzeko, abeltzain bakoitzak honako hauek egin beharko ditu:

a) II. eranskineko fitxa bete: datu pertsonalak, duxatu edo bainatu beharreko buru-kopurua, artzaintza-parajea eta gune gogokoena eta tratamendua egiteko aurreikusitako data zehaztuta. Tratatu beharreko buruen kopurua eskatutakoekin bat ez badator (gorantz), ezarritako kostuaren % 100eko kostuarekin zigorituko da.

b) **Uztailaren 25a baino lehen fitxa beteta bidali behar da**, Urbasa-Andia Parke Naturaleko bulegoetara, Bioitzako Baso Etxean, edo postaz helbide honetara:

Urbasa-Andiako Natura Parkea

OREKAN

K/ Jurramendi, 7

K/ Aita Andoain, 219

31200 –LIZARRA

31015-PAMPLONA

c) **Dutxa tratamenduagatik, buruko 0,50 € + % 21eko BEZa € ordaintzea, eta 0,30 € + % 21eko BEZa, buru bakoitzeko, bainua bada. Ordainketa GAN NIK SP-ri egingo zaio**, zeinek eskatzaileari ordainketa-gutuna bidaliko dion, zenbatekoa eta kontu-zenbakia adieraziz. Ordainagiria Teknikari koordinatzaileari aurkeztu beharko zaio, tratamendua egin baino 10 egun aurretik. Behin zenbatekoa ordainduta, GAN NIKek dagokion faktura egingo du.

d) Parasitoak hiltzeko erabiliko den produktua **SARNACURAN** izango da.
Oharra: Arbeltzeko tratamendua hainbat artalde elkartzuz egingo da.

Tratamendu antisartikoa EZ emateak, edo aplikatu izanaren EZ frogazteak, Baso Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legea haustea ekarriko du. eta ganadua Mendietatik kanporatzea.

Adeitasunez;

Urbasa Andia Parkea, 2025ko Ekainaren 3ean

**LA JEFA DE LA SECCIÓN
DE PLANIFICACIÓN FORESTAL**

HERNANDO
CHICOTE SALOME
- DNI 16803163F

Firmado digitalmente por
HERNANDO CHICOTE
SALOME - DNI 16803163F
Fecha: 2025.06.16 14:49:59
+02'00'

Salomé Hernando Chicote

I. ERANSKINA.-

**HAZTERIAREN AURKAKO TRATAMENDUA 2025ean APLIKATU IZANARI BURUZKO
ZINPEKO AITORPENA**

_____jn./and., NAN zk.: _____,
_____ zenbakia duen arditegiaren titularrak,

HONAKO HAU AITORTZEN DUT ZINPEAN

_____ (e)(a)n nire ustategiko ardiei hazteriaren aurkako tratamendua eman
diedala, _____ produktuarekin. Tratamenduari dagozkion fakturak atxiki ditut.

Eta hala jasota gera dadin, honako agiria sinatu dut _____(e)n, 2025eko
_____aren ____ (e)(a)n.

- Erabilitako produktu zoosanitarioak erosi izanaren fakturak atxiki ditut

II. ERANSKINA. - HAZTERIAREN AURKAKO TRATAMENDUAK ESKATZEKO FITXA

USTIATEGIAREN ZENBAKIA:	
IZENA:	
ABIZENAK:	
HELBIDEA:	
HERRIA:	PKa:
IFZ/NANa:	
TELEFONOA:	
DESPARASITATZEKO TRATAMENDUAK	
DUTXATU BEHARREKO BURU KOPURUA:	
BAINATU BEHARREKO BURU KOPURUA:	
PARAJEAK ETA DATAK, DESPARASITATZEKO	
☐ Juangorriko tratamendu-eskorta ☐ Zalbide ☐ Sosako tratamendu-eskorta ☐ Behekosareko tratamendu-eskorta	☐ Eskiza ☐ Kateliturri ☐ Mendingusi ☐ Arbeltzeko bainua
HILABETEA	HAMABOSTALDIA
Abuztua	
Iraila	

- Ardiei parasitoak kentzeko beste lekuren bat behar izanez gero, adierazi mesedez.
- Dutxatzeko aurreikusitako datak egoera meteorologikoen edo bestelako gorabeheren arabera aldatu ahal izanen dira.
- Bainuak abuztuaren 1etik irailaren 30era bitartean eginen dira soilik, eta ez da geroko beste data batzuetan baimenduko. Asteburuetan ez da tratamendurik eginen.

Urbanan, 2025eko ekainaren 3ean